BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

ALDIZKARI OFIZIALA

BOLETIN OFICIAL

XII LEGISLATURA — XII. AGINTALDIA

Serie B **Información, control e impulso** — **Informazinoa, kontrola eta sustapena** **B Saila**

XXII **Pregunta escrita** — **Idatzizko erantzun-eskea** **XXII**

Bilbo, 2026ko irailaren 24a
Número 534a — Bilbao, 24 de septiembre de 2026 — 534a alea

ASUNTO: Proceso selectivo en curso para la provisión de puestos de bombero/a conductor/a.

AUTOR: Ilardia Olangua, Beatriz

Admisión a trámite

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 22 de septiembre de 2026, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

Tramitación: Admitir a trámite.
Calificación: Conformidad con la calificación propuesta por el autor

Procedimiento de Tramitación: Normal
Plazos:
Remisión respuesta escrita por la Diputación Foral: 15 días
Otros acuerdos
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
Regulaciones:
Reglamento: Artículo 170 y 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 22 de septiembre de 2026.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Bea Ilardia Olangua, portavoz suplente de EH Bildu, formula las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales, acerca del proceso selectivo en curso para la provisión de puestos de bombero/a conductor/a.

JUSTIFICACIÓN

En el proceso selectivo que la Diputación Foral de Bizkaia tiene en marcha para cubrir las plazas de bombero/a conductor/a se ofertan 39 plazas, de las cuales cuatro están reservadas a mujeres.

Esta reserva de plazas se enmarca en las medidas de acción positiva previstas en la Ley 12/2023, de 23 de noviembre, con el objetivo de hacer frente a la escasa representación de las mujeres en los Servicios de Prevención, Extinción de Incendios y Salvamento y aumentar su presencia en dichos servicios.

GAIA: Suhiltzaile gidari lanpostuak betetzeko abian duen hautaketa-prozesua

EGILEA: Ilardia Olangua, Beatriz

Izapidetzeko onartzea

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2026ko irailaren 22an izandako bileran:

Izapidea: Izapidetzeko onartzea
Sailkapena: Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

Prozedurea: Arrunta
Epea:
Aldundiak idatzizko erantzuna bialtzeko: 15 egun
Beste erabagi batzuk
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
Araudi oinarria:
Araudia: 170. eta 92. artikuluak

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2026ko irailaren 22an.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI

Bea Ilardia Olangua EH Bilduko taldeburuordeak IDATZIZKO GALDERA hauek egiten dizkio Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari, suhiltzaile gidari lanpostuak betetzeko abian duen hautaketa prozesuaren inguruan.

ARRAZOIKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak suhiltzaile gidari lanpostuak betetzeko abian duen hautaketa-prozesuan 39 plaza eskaintzen dira eta horietatik lau emakumeentzat gordeta daude.

Plaza-erreserba hori azaroaren 23ko 12/2023 Legean aurreikusitako ekintza positiboko neurrien esparruan kokatzen da, emakumeek Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuetan duten ordezkaritza eskasari aurre egiteko eta haien presentzia handitzeko helburuarekin.

Según una información publicada en los últimos días en los medios de comunicación, la situación de una persona aspirante que opta a una de las plazas reservadas a mujeres en este proceso de selección ha generado quejas y reclamaciones.

Según la información publicada, esta persona modificó la mención registral relativa al sexo antes de la convocatoria, por lo que otras personas aspirantes han solicitado al tribunal de selección que analice la situación.

A este respecto, las bases de la convocatoria recogen expresamente la posibilidad de actuación ante posibles conductas fraudulentas en el proceso selectivo. En concreto, en los casos relacionados con la modificación de la mención registral relativa al sexo, cuando existan indicios racionales y debidamente justificados de fraude, se prevé que se pueda analizar la situación y adoptar las medidas oportunas.

Teniendo en cuenta que el objetivo de la reserva de plazas para mujeres no es únicamente reservar formalmente un determinado número de plazas, sino aumentar realmente la presencia de las mujeres en este servicio, en la actualidad notablemente masculinizado, formulamos las siguientes PREGUNTAS PARA SU RESPUESTA POR ESCRITO al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales:

1. ¿Tiene conocimiento la Diputación Foral de Bizkaia de esta situación? En caso afirmativo, ¿desde cuándo tiene conocimiento y qué información tiene al respecto?
2. ¿Tiene conocimiento la Diputación Foral de Bizkaia de algún escrito, queja o reclamación al respecto presentada por las personas aspirantes u otras personas interesadas? En caso afirmativo, ¿cuántos son y cuándo se presentaron?
3. ¿Ha adoptado la Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de sus competencias, alguna actuación o medida ante esta situación? En caso afirmativo, ¿cuál?
4. ¿Puede la Diputación Foral de Bizkaia conocer si se han iniciado actuaciones para analizar o aclarar la posible existencia de indicios racionales y debidamente fundados de fraude previstos en las bases de la convocatoria? En caso afirmativo, ¿en qué situación se encuentran?
5. Mientras se clarifica esta situación, ¿qué ocurrirá con el proceso de selección y, especialmente, con la adjudicación de plazas reservadas a mujeres? ¿Continuará el proceso o está previsto que se adopte alguna medida hasta que se aclare esta cuestión?

Bilbao, 16 de septiembre de 2026

Beatriz Ilardia Olangua,
Portavoz suplente del grupo EH Bildu

Azken egunotan hedabideetan argitaratutako informazioaren arabera, hautaketa-prozesu horretan emakumeentzat gordetako plazetako bat eskuratzeko lehian dagoen hautagai baten egoerak kexa eta erreklamazio eragin ornen ditu.

Argitaratutako informazioaren arabera, hautagai horrek sexuaren erregistro-aipamena aldatu zuen deialdia egin aurretik, eta beste hautagai batzuek hautaketa-epaimahaiari egoera aztertzeko eskatu diote.

Horri dagokionez, deialdiaren oinarriek berariaz jasotzen dute hautaketa-prozesuan iruzurrezko jokabideak egon daitezkeen kasuetarako jarduketa-aukera. Zehazki, sexuaren erregistro-aipamenaren aldaketarekin lotutako kasuetan, iruzurraren arrazoizko eta behar bezala justifikatutako zantzuak daudenean, egoera aztertu eta dagozkion neurriak hartu ahal izatea aurreikusten da.

Kontuan hartuta emakumeentzako plazen erreserbaren helburua ez dela plaza kopuru jakin bat formalki gordetzea soilik, baizik eta emakumeek gaur egun nabarmen maskulinizatuta dagoen zerbitzu horretan duten presentzia benetan handitzea, gai horren inguruan IDATZIZKO ERANTZUN ESKE hau egiten diogu Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari:

1. Bizkaiko Foru Aldundiak ba al du aipatutako egoeraren berri? Hala bada, noiztik eta zer informazio dauka horren inguruan?
2. Bizkaiko Foru Aldundiak ba al du hautagaiek edo beste interesdun batzuek gai horren inguruan aurkeztutako idazki, kexa edo erreklamazioren baten berri? Hala bada, zenbat eta noiz aurkeztu ziren?
3. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumenen esparruan, jarduketarik edo neurririk hartu al du egoera horren aurrean? Hala bada, zein?
4. Bizkaiko Foru Aldundiak ba al du jakiterik deialdiaren oinarrietan aurreikusitako iruzurraren arrazoizko eta behar bezala funtsatutako zantzuak egon daitezkeen aztertzeko edo argitzeko jarduketarik abian den? Hala bada, zein egoeratan dago?
5. Egoera hori argitu bitartean, zer gertatuko da hautaketa-prozesuarekin eta, bereziki, emakumeentzat gordetako plazen esleipenarekin? Prozesuak aurrera jarraituko du, ala gai hori argitu arte neurriren bat hartzea aurreikusten da?

Bilbon, 2026ko irailaren 16an

Beatriz Ilardia Olangua,
EH Bildu taldeko taldeburuordea